

www.noaia.com

Noaia!!!



Hamaikabat eta Herri Plataforma, 5 edukiontzien alde



Aralar, Ezker Abertzalea eta EAJ-PNVren agiri bateratua

“Herritarren parte hartzea
eta lana eredugarriak izan dira”

www.behetik.com

**Eskailerak igotzea...
ez da oztopo!**

-plataformak -igogailu bereziak -aulki bereziak...



b
ehetik

Añorga-txiki 14, tel: 943 368 781 eta 671 073 888



antenas
Telemar

49 egun falta dira!!!



elkano kalea 13 HERNANI

Tlfnoa. 943 55 33 99
info@antenastelemar.com



Albistea iruditan !!

Santa Ageda bezpera, koplatan aritzeko eguna

Udarregi ikastolako irakasle zein ikasleak makila eskutan eta baserritar jantzia soinean Santa Ageda bezperako koplak abestera irten ziren kalejiran, igaro den otsailaren 4an. Talde desberdinetan zatituta, Kaxko inguruneak zeharkatu zituzten Lehen Hezkuntzako ikasleak. Geroago irten ziren Haur Hezkuntzakoak.

Denek pilotalekuan amaitu zuten ibilbidea. Frontoian zain zituzten, guraso eta herritarrak, makil kolpeak eta nola abesten zuten entzuteko prest. Aipatzekoa, koplaren artean, bazirela ikasleek beraiek sortutakoak ere. Santa Ageda bezperako usadio zaharrak bizirik dirau Usurbilen.



SANTA AGEDA BEZPERAN, BAZKALOSTEAN KOPLAK ABESTEN IRTEN OHI DIRA URTERO UDARREGI IKASTOLAKO IKASLE ETA IRAKASLEAK.

Noaua !!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordaerri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkarte@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkari koordintzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbieta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Tirada: 2.800 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

HERRI KONTSULTA, ALDERDIEN AHOTAN **5. OR.**

SAHARAREKIN, ELKARTASUNETIK **8. OR.**

ZUBIETAKO ESKOLA TXIKIA **12. OR.**

PREFERENTE MAILAKO FUTBOL TALDEA **13. OR.**




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

ZUBIAURRENEA USURBIL
Ileapaindegi mistoa
943361951

ALIPROX

Kale Nagusia 10
☎ 943 361 182
USURBIL

J.ORBEGOZO
TURGINZA • GASA • BEROKUNTZA
BIZKARRA 1, 1.EBK 943372937 • 659602789



IMANOL UBEDA

Duela zazpi urte izan zen

Zazpi urte asko dira. Eta ezertxo ere ez. Ihesi eman behar izan dituenarentzat, zazpi urteko aberrimina gogorra behar du izan.

Zazpi urte bete dituen neskatilaren ilusioa baino gauza politagorik ba al da? "Zazpi urte? Aiba, zenbat urte!". *Zazpi pasa al dira honez gero?*, xuxurlatuko diogu ondoren bere amari; eta gure baitan pentsatuko dugu, "Jesusmariatajose, atzo izan zela dirudi!".

Bere burua noraezean dabilen txalupa baten barruan irudikatzen duenarentzat, azken hiru urteotan non porturatu ezin asmatu dabilenarentzat, denbora epe hori luuuuuz oso luuuuuz egiten ari zaiola pentsatuko du bere baitan.

Duela zazpi urteko Inauteriak, aldiz, gogoangarriak izan ziren gure lagun taldean. Koadrilako batek aita izan behar zuela esan zigun eta, aitzakia horrekin, parranda are ederragoa izan zen orduko Ostiral Mehe eguneko. Gau hartako brindisa... Ba atzokoa dela dirudi memorian gordeta dudana argazkia.

Orain lau urte, hain juxtu, erosi zuen nire lagun batek etxea. Etxea eta auto berria. Etxea, auto berria eta telebista handi bat. Mailegu berean, hirurak. "Total, modu onean

utzi didate bankuetxean eta, ze ostia, orain ala inoiz ez!". Damu handia du orain. Ozen esatera ausartzen ez bada ere. Lanean gaizki, mailegua ordaintzeko komeriak baina, hori bai, etxe berri batean bizi da, auto elegantea du eta telebista handi bat etxean zain. 2031 urtea ordea, mailegua kitatuko duen urtea, urrutiegi ikusten du eta horrek barrenak mintzen dizkio. Irribarre ederragoa zuela alegia, ezagutu nuenean.

Zergatik pasatzen dira hain azkar zorion beteko uneak? Zergatik irauten dute hain gutxi? Eta saminak, aldiz, zergatik uzten du arrasto luzeagoa gugan?

Ez dut ahaztu nahi duela zazpi urte herri honetan pasa zena. Gauzez eta armen mehatxupean, hainbat euskaldun eraman zituzteneko gaua. Eraman esan dut, bai. Horretan euskaldunak gutxitan baikara deituak. Eraman egiten gaituzte. Eta nola eta nora eraman gainera. Zazpi urte beteko dira datorren astean. Bidegabekeriak izu itxura hartu zueneko. Batzuentzat, gau beltza ez da amaitu oraindik. Hasieran esan dut. Zazpi urte asko dira. Eta ezertxo ere ez. Baina tratatu txarrek betiko arrastoa uzten dute barruan. Eta hori ez da denborarekin sendatzen.

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Joxe Piñas - Ugaitz Agirre - Unai Agirre - Idoia Torregarai

Lau urte eta gero, itxita jarraitzen du Aitzagak

Lau urte beteko dira otsailaren 11n, Auzitegi Nazionalako Fernando Grande-Marlaska epailearen aginduz Guardia Zibilak Aitzaga itxi zuenetik. Bilgunea izan ez arren, urteotan lanean jarraitu dute elkarteko kideek, azokak edota hitzaldiak antolatzen.

Itxi eta gutxira, Aitzaga elkarteko kideek igorritako oharrean adierazten zutenek, "herriaren eraikuntzarako sortu eta garatutako proiektu bat, Estatu indarraren arrazoiaz itxi dute. Era berean hiru usurbildar Madrilen deklaratzeko

ra behartuak izan dira".

Egun haietan, hedabide ugariaren arreta erakarri zuen itxierak. Gertatutakoa salatzen hainbat mobilizazio burutu ziren herrian. Oztopoak oztopo, egoitza itxi arren, elkarteko kideek lanean jarraitzeko asmo irmoa erakutsi zuten. Eta horretan jardun dute urteotan, ekitaldi desberdinak antolatuz; hala nola, hitzaldiak edota azaroaren 1eko Artisautza Azoka.

Abertzale eta ezkertiarren bilgune izateko zabaldu zituen ateak Aitzagak, 1994. urtean. Orduetik, ehunka ekitaldi



2006KO OTSAILAREN 11N ITXIARAZI ZUTEN AITZAGA.

antolatu edota babestu ditu. Itxi zutenean, 120 bazkide zituen.



Usurbil
Autoak, S.C.L.
Zerbitzu Ofiziala

Zumartegi Poligonoa,
Aitezarra kalea, 1.
20170 USUREBIL
Faxa: 943 36 62 92

943 36 10 79

LATAILLADE **ITURGINTZA**

GASA
BERORUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Ariztitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021

Herri kontsulta, politikoen ahotan

Otsailaren azken asteburuan, hiri hondakinak nola kudeatu nahi ditugun erabakitzeak aukera izango dugu. NOAUA!n, gai honi buruzko iritzi ezberdinak bilduko ditugu datozen asteetan. Honakoan, udal txean ordezkatuta dauden indar politikoen iritziak bildu ditugu. Datorren astean, herri mugimenduen txanda izango da.

Duela ia urtebete, eta prozesu parte-hartzaile baten ondorioz, atez atekoa jarri zuen martxan udal gobernuak. Esan behar da urrats hori udal korporazioaren babes zabalarekin eman zuela agintean den udal gobernuak.

Atez atekoarekin, ordea, korronte kritiko bat osatu zen herrian eta bilketa sistema horren ordez bost edukiontzien aldeko apostua egiten duen Herri Plataforma osatu zen. Herri kontsulta bat eskatu zuten, firma ugari bilduz. Euren eskaera otsailaren 27ko asteburuan hezurmamituko da.

Herritarrek ezagutzen dute aurreko bilketa sistema nolakoa zen. Ezaguna zaie ere sistema berria, atez ateko bilketa. Orain, euren iritzia emateko aukera dute. Otsailaren 27an eta 28an antolatu den herri kontsultan, iritzi hori bideratzeko aukera izango dute. Orriotan, indar politikoen iritziak aurkituko dituzue. Hurrengo astean, herri mugimenduen.



HERRI KONTSULTARAKO KANPAINA
ASTE HONETAN HASI DA OFIZIALKI.

1. Errauste-plantaren proposamenari aurre eginez, atez ateko bilketa sistema ezarri da herrian. Azken urte honetan, hiri hondakinaren tratamenduak Usurbilen izan duen bilakaera egokia iruditu zaizu?
2. Herri eragileek eta Udalak adostutako herri kontsulta izango da. Kontsulta-eskaera egin zenetik hona, herri galdeketak jarraitu duen prozedura egokia iruditu zaizu?
3. Kontsultan, hiru bilketa sistema posibleren artean aukeratzeko eskatzen da. Zein da zure alderdiak bozkatuko duen aukera? Arrazoitu aukera hori.

Ezker Abertzalea Usurbil

1. Herriak arazo larri bati ausardiaz heldu diola iruditzen zaigu: aitzindaria izan da osasunaren eta ingurumenaren alde konponbide bat bilatzean. Ahalegin eta ohitura aldaketa txiki batez hondakinaren arazoari alternatiba erreal bat aurkitu dio. Zentzu horretan, usurbildarren parte hartzea eredu garria izan da eta bilketaren emaitzek egin genuen apustuari arrazoia ematen diote: %28tik %82 birziklatzen dugu orain, gainerako ereduarekin inork lortzen ez duena. Emaitza hauen sekretua, benetako gure teknologia punta Usurbilgo herritarrek direla sinestea da. Erraustegirik behar ez izateko moduko sistema bat aurkitu dugu, eta gustora gaude. Eta Oiartzun eta Hernanik ere, bidea hau dela ikusi dute.

2. Parte hartze prozesutik hona, ingurumen eta osasun gaiarekin sensibilizatu-tako herri eragile eta herritarrekin elkarlanean aritu da Udala. Horretaz gainera, hondakinaren kudeaketaren gaiarekin erabakiak hartzeko moduan eredu berria markatu du, argia, zabala eta herritarrei hautu ahalmen benetakoa eskaini diona prozedura batekin. Alde horretatik, hainbat bileratan herriko eragileek udal alderdiekin galdera adostu ondoren Plenoan onartu zen. Madrildik baimen agiria azaroaren amaieran iritsi zen, baina estatuko Gobernu Kontseiluak ez du zehazten jarraitu beharreko prozedura. Hori horrela, zilegitasun juridiko eta politiko osoa jaso duen prozedura pres-tatu da. Argigarria da hori onetsi ez duen udal alderdi bakarra egotea.

3. Arrazoiaren garrantzitsuen, gure osasun eta ingurumenarekiko kezka da. Ez Zubietan ez inon ez dugu erraustegirik nahi, eta horregatik, Ezker Abertzaleak argi du Atez Ateko bilketa dela bidea. Datuek ere arrazoa ematen digute bide horretan: %82 birziklatzen dugu. Gainerako ereduak %25 inguru birziklatzen dute. Herritar guztiok hondakinaren arazoarekin amaitzeko bidea ahalik eta gehien birziklatzea dela uste badugu, nola egingo dugu hain gutxi birziklatzen duten aukeren alde? Ezker Abertzaleak bezala usurbildarrak argi eta garbi dauka hori. Orain azken txanpa da, una orain da, beraz, ez etxean gelditu.

Erabakia zurea da, erabaki! Bozkatu Atez Ate.



1. Errauste-plantaren proposamenari aurre eginez, atez ateko bilketa sistema ezarri da herrian. Azken urte honetan, hiri hondakinen tratamenduak Usurbilen izan duen bilakaera egokia iruditu zaizu?
2. Herri eragileek eta Udalak adostutako herri kontsulta izango da. Kontsulta-eskaera egin zenetik hona, herri galdeketak jarraitu duen prozedura egokia iruditu zaizu?
3. Kontsultan, hiru bilketa sistema posibleren artean aukeratzeko eskatzen da. Zein da zure alderdiak bozkatuko duen aukera? Arrazoitu aukera hori.

Hamaikabat Usurbil

1. Galderan bertan egiten duzue planteamendu okerra. Atez-ateko sistemak ez baitu errauste-planta ordezkatzen. Kontzeptuak nahasten dituzue eta dituzte. Bata bilketa sistema bat da eta bestea zaborren tratamendu sistema bat. Are gehiago Atez-ateko bilketa sistema guztiz konpatiblea izan liteke errauste-planta batekin. Eta errauste-planta ez bada, zabortegei bat kokatu beharko dugu Usurbilen.

Tratamenduari dagokionez garapen nagusiena autokonpostagailuen hedapena izango litzateke baina ez dugu esperientzia honen emaitzarik. Udal gobernuak ez ditu eman. Lapatxeko zabortegeian konpostatzen diren hondakin organikoen emaitzak ere ez dira publiko egin: zenbat tona konpost, nora bideratuak izan diren, zer kostu izan duen...

Beste frakzioak lehen bezala tratatzen dira. Bilketari erantzunez nabarmena da paperaren jaitziera eta besteen igoera bost

edukiontziekin lorgarriak dira.

Zentzu horretan, galdeketaren eguna aurkeztu bezperan zergatik kendu zituen Udalak bere web orritik azaroko datuak? Ba emaitza txarrak zirelako errefus kopuru handia zela eta. Porrotaren adierazgarri. Eta era berean planteamendu oker honen adierazgarri.

Ezin ahaztu ere urte oso bat kontuan harturik "desagertu" diren 1000 tona (%36): beste herrietara, estolderitik barrena...

2. Berrito ere galdera enfoke desegokiarekin. Herri Kontsulta ez da herri eragileekin adostua izan. Herri Kontsulta eskatu, bultzatu eta horren alde izugarriko lana egin duen Herri Plataformaren aurkako iritziarekin egin da hasera-haseratik, horrela komeni zitzaielako herri agintariei. Gezur monumentala da "adostasun" terminoa erabiltzea, bai zabor bilketa sistemaren inposaketaren inguruan, bai galde-

ketaren prozedura zehazteko garaian.

Azken urte honetan, gai honen inguruan, tentsio sozial ikaragarria sortu da herrian, lotsatzeko moduko gertaerak izan dira. Azken egun hauetan areagotu direnak 5 edukiontzien aldeko kartel eta pankarta txikitzeekin. Udal gobernutik Kontsulta oztopatze eta manipulatzeko jarraera besterik ez dira izan.

3. Galdera, berrito ere, gaizki zuzendua. Galdeketan alderdiek ez dute bozkatzen, herritarrek baizik. Bozketan jartzen diren hiru aukeren artean 5 edukiontzien aukera hautatzeko eskatzen diegu herritarrei.

Gipuzkoako beste herri gehienek aukera delako; merkeago delako; bilketa emaitzak onak lortzen direlako; osasuna, ingurumena eta herri estetika aintzakotzat hartzen duelako eta 5 edukiontzien alde bozkatuz 4 edukiontzien alde ere egiten delako.

5 edukiontzien alde eginez Atez-ateko bilketa sistema Usurbildik desagertuko da.

Aralar Usurbil

1. Atez Ateko sistema martxan jarri zenetik, emaitzak oso nabarmenak izan dira: Usurbilen hondakinen aprobetxamendu oso ona lortu dugu, ditugun datuen arabera gaika bildutako kopurua %28tik %82ra pasa da epe motzean eta errefusa ikaragarri jaitzi da. Egia da tentsio batzuk izan direla gai honen inguruan eta oraindik ere zenbait puntu hobetu daitezkeela herrian egindako inkestan agertu bezala, baina oro har oso esperientzia interesgarria izan da herritarren artean hondakinen jabe egitea.

Azken finean, Katalunian, Italian, Frantzia eta munduko beste leku askotan egiten dutena egiten hasi gara Usurbilen. Orain, Hernanin eta Oiartzunen hasiko dira, eta seguru laster Euskal Herriko herri eta hiri gehiagotara zabalduko dela Atez Ateko bilketa siste-

ma. Usurbilgo herritar guztiok harro egoteko modukoa da.

2. Egia da plataformaren eskaera baten ondoren etorriko dela baina hasieratik eman zitzaion baietza udalean. Herri kontsulta egitea erabaki orduko bilerak izan ziren herriari zer galdetu behar zitzaion erabakitzeko. Bilera horietan udal honetako ia alderdi guztiok parte hartu genuen, eta ingurumenarekin harremana duten herriko eragileak ere bai.

Denok zerbaitetan eman genuen amore, baina galdera adosteko gaitasuna ere izan genuen. Talde politiko eta sozial guztiek izan dute aukera bide osoan parte hartzeko, eta parte hartu nahi izan ez duenak berak esplikatuko beharko du zergatik egin duen.

Galdeketaren tramitazioa nahi baino gehiago luzatu da, eskaera Madrilerara egin behar zelako eta antolakuntzak ere lanak eman dituelako. Legeak hortara behartzen ez badu ere udalean erabaki dugu emaitza loteslea izango dela, hau da, herriak aukeraturako sistema erabiliko dela.

3. Partiduek eman beharreko botoa emana daukate, orain herritarrei tokatzen zaie. Usurbilgo Aralarretik mezu garbia jakinarazi diegu beti herritarrei: hondakinak biltzeko ezagutzen ditugun sistemen artean, Atez Atekoa da egokiena, errefusa asko murrizten delako eta, ondorioz, osasuna eta ingurumena errespetatzen duten tratamenduak ahalbidetzen dituelako. Urte betez probatu dugu eta emaitzak hor daude. Orain herritarren baiezkoa behar dugu.

1. Errauste-plantaren proposamenari aurre eginez, atez ateko bilketa sistema ezarri da herrian. Azken urte honetan, hiri hondakinen tratamenduak Usurbilen izan duen bilakaera egokia iruditu zaizu?
2. Herri eragileek eta Udalak adostutako herri kontsulta izango da. Kontsulta-eskaera egin zenetik hona, herri galdeketak jarraitu duen prozedura egokia iruditu zaizu?
3. Kontsultan, hiru bilketa sistema posibleren artean aukeratzeko eskatzen da. Zein da zure alderdiak bozkatuko duen aukera? Arrazoitu aukera hori.



EAJ-PNV Usurbil

1. Gure ustez azken urte honetan hiri hondakinen tratamenduak, atez ateko zerbitzua ezartzeari deritzon, izan duen bilakaera egokia iruditu zaigu. Onartu beharra dago leku askotan erabiltzen den sistema dela. Sistema honekin birziklatu ez daitezkeen hondakinak asko gutxitu daitezke, datu hau ukazina da. Horregatik orain dela urte bete gure botoa baiezkoa izan zen aukera hau garbi ikusten genuelako.

Atez ateko zerbitzuak urte honetan emaitza onak izan ditu, birziklatze tasa handia izan da (Euskal Herriko handiena). Zenbat eta hondakin gehiago bereiztu birziklatze portzentaia igo daiteke eta azken frakzioa gutxitu. Hala eta guztiz zerbitzua asko hobetu beharko litzatekeela uste dugu: bilketa gaez eginez, hondakin guztientzako ontziak ezarritik, herriaren itxura guztiz aldatuko lukeena, eta maiztasuna gehitu beharko litzateke; komertzioari erraztasun gehiago eskaini beharko

litzaioke. Esan beharrez gaudere, zerbitzuaren hobekuntzarako gure ekarpenak ez direla onartuak izan.

Egun PIGRUP da Gipuzkoarako mankomunitate guztiek onartu duten akordioa hondakin guztien gestiorako, bera da hondakin guztientzako gestio orokorra bermatuko duena eta soluzio orokorra emango diona hondakinen tratamenduari (...). Atez ateko zerbitzuak bilketa bereiztea eta ondorioz azken frakzioa gutxituko duen aukera bat da eta PIGRUP berak onartzen duena baina inola ere ez da orokorrean Gipuzkoako hondakinen tratamenduaren alternatiba bat.

2. Ez, ez zaigu egokia iruditu. Osatu zen Plataformak eskatutako kontsulta da izango duguna datorren 27 eta 28an. Guri ez zaigu aukerarik eman kontsultan ze galdera mota izango diren erabakitzeko. Bertan Usurbilgo eragileei eman zioten ANVkoek eginkizun hori eta Plataforma berak ez

zuen bertan parte hartu nahi izan. Emaitza bozkatzeko hiru aukera jartzea izan zen, eta guk honen aurka bozkatu genuen. Behar bada aukera hau jartzea manipulazioa edo beldurraren eragina izan daiteke. Gure ustez bi aukera bakarrik izan beharko luke, hori mahai gaineratu genuen. Lau edukiontzien sistema soberan dago. Dagoeneko ez dugu uste inork eskatzen duenik aurreko sistemara itzultzea.

3. Hasteko, kontsulta honetan parte hartu beharko litzatekeela uste dugu, jakiteko benetan zein den usurbildarraren iritzia. Pertsona bakoitzak askatasunez erabaki behar du zein aukera den egokiena. Beraz gure alderdiak pentsatzen du bakoitzak bere ikuspegitik komenigarria den aukera erabaki behar duela edo atez ateko edo 5. edukiontzia.

Azken hitza herritarrek izango dute. Usurbildarrek erabakitzen duten sistema EAJ-PNVk onartuko du.

PSE-EE Usurbil

1. Uste dut akats handia dela etxeko hondakinen gaikako bilketa eta erraustegia lotzea. Bi gai ezberdin dira eta aparte landu beharrekoak. Planteamendu hau, horrela eginda, badirudi usurbildarrek soilik birziklatzen dutela aldamenen errauste-planta bat jarri behar dietelako. San Markosko zaborte-giarekin jarraituko balitz edo inguruan errauste-planta bat martxan jartzea planteatu izan ez balitz, ez zirela birziklatzeaz arduratuko usurbildarrak. Jarrera hau hipokritena da eta ni oso seguru nago usurbildarrak ez direla hipokritak.

Aurten, gaikako bilketa asko handitu da, eta birziklatzen den guztia ona da herritarrentzat. Ingurugiroa babesten laguntzen duelako eta osasuna delako denentzat.

2. Prozesu irekia izan da eta parte hartu nahi izan dutenek parte hartu dute, kontsulta bideratu ahal izateko, gaurko legeak ezartzen dituen urrats denak eman dira. Luze egin da, kontaezinak dira egin diren kontsulta denak. Gobernu Delegaritzan, Administrazio Publikoen Ministerioan, eta abar... Honek hilabete asko eskatu ditu, (Espainiako) Gobernuari baimena eskatu eta urte bukaera arte ez zen Ministroen Kontseiluaren baimena iritsi. Gero prozesu dena kontsultan egokitu behar izan da, lege markoaren baitan, ze gaur egun Erkidego Autonomiko honetan ez dago legerik eginda. Ez da batere erraza izan eta onartu eta eskertu behar dugu Nagorek, udal idazkariak, egin duen lan handia, kontsulta hau martxan izan dadin.

3. Denok badakigu funtsean bi aukera baino ez direla izango, edo bost edukiontzia edo atez atekoa. Uste dut esateko gehiagorik ez dagoela, herritarrek bi aukerak frogatu ahal izan dituzte, era librean iritzia emateko nahikoa informazioa dute eta nahikoa helduak eta azkarrak gara denak erabakiak hartzeko. Uste dut nik ezin diedala argumentu handirik eman bi sistemak probatu dituztenei, nik ez dudalako bi sistemak probatzeko aukerarik izan.

Hiru tona lehengai Sahara aldera

Esker oneko ageri ziren otsailaren 2an Lasarte-Oriako Sahararen Herriaren Lagunak taldeko kideak, Saharara oinarritzko lehengaiak bidaltzeko gure inguruan koordinatu duten kanpainaren amaieran. Aurtengoan, hiru mila kilo jaso dira guztira, Usurbil, Lasarte-Oria eta Añorgan egokitutako biltokietan. Azken asteotan gurean jasotakoa, otsailaren 20an Gasteiztik Saharara bidaliko da.

Saharara eramateko urtarilean burututako laguntza kanpaina amaitu da. Hiru tona jaso dira Usurbilen, Lasarte-Orian eta Añorgan. Oro har, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan, bilketa, laurhun tonara ailegatzea espero dute ekimeneko antolatzaileek, nahiz ez dakiten ziur kopuru horretara ailegaterik izango ote duten, gertutik hasita.

EGOERA OKERTZEN DOA

“Herritarrak gosez daude. Geroz eta zailagoak dira kanpamenduetako bizi-baldintzak”

“Usurbilen eta Lasarte-Orian kanpaina oso ondo joan da, baina Donostian adibidez gutxiago jaso da”, adierazi dute Lasarte-Oriako Sahararen Herriaren Lagunak taldeko kideek. Haiek izan dira, Usurbilen, Lasarte-Orian eta Añorgan egin den bilketaz arduratu direnak. Baina ekimena askoz orokorragoa da eta hori guztia, S.E.A.D.-en aldeko Otsailak 27 Euskal Elkartearen Koordinakundea ari da antolatzen.

Bilketa kopurua iazko bera izan edota gorabeherarik egongo ote den zalantza zuten, Lasarte-Orian osatua den taldeko



GURE INGURUAN JASOTAKO LAGUNTZA, OTSAILAREN 20AN ABIATUKO DA GASTEIZTIK SAHARA ALDERA.

kideek, besteak beste, krisialdi ekonomikoa dela eta. Baita, berriki, Haitin gertatu den lurrikaragatik ere, herritar askoren elkartasuna eta laguntza urtarila hasieran lurrikara jasan zuen ingurunera bideratzen ari delako azken asteotan.

Lasarte-Oriako Sahararen Herriaren Lagunak taldeko ordezkariak. Beste behin salatu zuten, artean gobernu desberdinak herritarrak zapaltzen eta bertako baliabide naturalak espoliatzen ari dira.

Bilketa, iazkoaren antzekoa

Balantzaren beste aldean aldiz, zeresan ugari eman duen Aminatou Haidarren kasua ere hor dago. Antolatzaileek aipatzen dutenez halere, Usurbilen behintzat ez da aldaketa handiegirik sumatu, bilketa kopurua iazkoaren bueltan mantendu baita. Bilketa gunea egokitu zuten pasa den hilabetean Urbil merkatal gunean ere; egun bakar batean, oinarritzko mila kilo gai jaso zituzten.

Halere, gogorarazi dutenez, gure inguruan krisi ekonomikoa pairatzen ari garen artean, munduko beste hainbat txokotan, “elikadura-krisia edota krisialdi humanitarioa sufritzen ari dira”. Sahararren egoera horren guztiaren lekuko. “Herritarrak gosez daude. Geroz eta zailagoak dira kanpamenduetako bizi-baldintzak”, adierazi zuten

Eskerrak herritarrei

Otsailaren 20an, Gasteiztik abiatuko da, Sahararen aldeko seigarren euskal karabana. Helburua, gure artean jasotako oinarritzko ahalik eta elikagai gehien Tindufeko (Aljeria) errefuxiatu kanpamenduetan dauden sahararrei helaraztea da, pairatzen duten elikagai gabeziari aurre egiteko.

Lasarte-Oriako Sahararen Herriaren Lagunak taldeko kideek urteroko elkartasun ekimenean parte hartu duten herritarrak eskertu nahi dituzte, baita biltokiak jartzen dituztenak ere. Kasu honetan, Usurbilen hiru gunetan burutu da bilketa; Aliprox eta Dia saltokietan eta Udarregi ikastolan.

txirriStra
KONTSEJUZARRA 13
943 360 466

pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak

TABERNA

Kima
MASAJE LEKUA

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- behea
LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97

Usurbil

gure etxea. gure herria. gure planeta.



AGUSTIN DOMINGUEZ

"Oso erraza da, eta mesede handia egiten dlogu ingurumenari"



ARANTXA USARRALDE

"Arazoari aurre hartzea hobea bait da, kalteak konpontzea baino"



IÑAKI ERRASTI

"Aspaldi ekin behar genion bide honi, eta ea beste lekuetan ere lehenbailehen ekiten dioten."



ITZIAR ILARRAMENDI

"Ahalegin txiki eta zailak, egiten gaitu handi"



IXAAK ARRUTI

"Birziklatzeko metodorik hoberena, egiten erraza eta errefusa hutsaren hurrengoia denez, erraustegia ez dela behar erakusten du"



JONE IZETA

"Hondakinak gaika bereizteko egiten dudun ahaleginak, fruitu on bat eragiten duela ikusten dudalako"



JOSEANTON ARTZE

"Jendearengan sortu duen kontzientzia zaborraren arazoarekiko, hasiera hasieratik jendearen esku-hartze arduratsua eta erakutsi duen autodisziplina, eredugarriak izan dira benetan"



KARMEN OROZ

"Erraza da bereiztea, eta gainera atarian jasotzea, oso erosoa"



LEIRE ATXEGA

"Norberaren bizi kalitateagatik eta gure ingurunea zaintzeagatik, apertazio handi bat egiten bait du norberak hondakinak gaika bereizteak"



RAMON IPARRAGIRRE

"Hondakina erretzeko zaborra bihur ez dadin"



MAITE LABIANO

"Denon osasunagatik, eta batez ere umeengatik"



MIEL MARI UNANUE

"Orain daukagun Usurbil osasuntsua, gerora ere izan dadin"

**ATEZ
ATE!**
dudipe

ATEZ ATE DUDIPE! BILGUNEA

www.dudipe.info

Zumartxan txarangaren lehen Inauteriak

Ikasturte honetan osatu da Zumarte Musika Eskolaren baitan

Ikasturte honetan osatu da Zumartxan, Zumarte Musika Eskolako ikasleekin osatu den txaranga. Aritz Lonbide irakaslearekin aritu dira Inauterietako eta, orohar, txarangarako errepertorioa entseatzten. Astero elkartzen dira eta larunbat honetako Inauteri Festan hartuko dute parte. Musika Eskolatik abiatuko dira eguerdiko 12:30ean. Zumartxanen doinuekin piztuko da, beraz, aurtengo Inauteri Festa.

Inauterietan jotzea baino garai hobea-gorik ez da txaranga batentzat. Akaso horregatik, Zumartxan txaranga berriko partaideak gogotsu aritu dira entseatzten azken asteotan. Izena ere, Zumartxan, euren asmakizuna izan da. Eta eskolaren izena eta jai-giroa ondo baino hobeto lotu dute hitz bakarrean. Larunbat honetan, eguerdi partean arituko dira.

Aukeran, "zirkoa"

Zumartxan taldekoak goizez arituko dira eta arratsalde, aldiz, Burrunbazale txarangakoak. Musika eurek jarriko dute. Mozorroak eta kaleko giroa, ordea, herritarrek.

Antolaketa batzordetik, zirkoa da proposatu den gaia, joko asko eman deza-keena.



SANTA ZEZILIAKO KALEJIRAN ESKAINI ZUTEN LEHEN SAIDA. LARUNBAT HONETAKO INAUTERI FESTAN, EGUERDI PARTEAN ARITUKO DIRA KALEAK ALAITZEN.

Baina izango dira zirkoa alde batera utzi eta euren kasa mozorrotuko direnak. Batzuk eta besteak, behintzat, arratsaldeko 18:30erako daude deituak.

ARRATSALDEZ, BESTE BAT

"Arratsaldean, ordea,
Ordiziako Burrunbazale
txarangakoak arituko dira"

Orduan hasiko da ofizialki mozorro kalejira. Burrunbazale Ordiziako txaranga bezala, desfilea ere 18:30ean abia-

tuko da udaletxe aurretik.

Iaz herriko batukada taldearekin burutu zen kalejirak harrera ezin hobea izan zuen. Oraingoan baina, txaranga izango da eritmoa ezarriko duena.

Kalejiran ibili ondoren, Saizarren egingo da afaria (txartelak erosteko garaia amaitu da).

Otsailak 13 larunbata

12:30 Kalejira Zumarteko txaranga gaztearekin, Musika Eskolatik abiatuta.

18:30 Kalejira Burrunbazale txaranga-arekin, udaletxe aurretik abiatuta.

21:00 Afaria Saizarren.

Lehenik eta behin, Udarregiko ikasleen kalejira eta festa

Larunbat honetan ospatuko da Inauteri festa. Baina bezperan, ostiral honetan alegia, Udarregiko ikasleak izango dira mozorro jaia egingo dutenak. Kanean lehenbizi, kiroldegian gero.

INAUTERI MARTXA

10:00 Lehen Hezkuntzako ikasle- en kalejira. Bi ibilbide:

LH 1-2-3: Agerialde, Atxegalde, udaletxea, Kale Nagusia, Errekatxo

kalea, Zubiaurrenea kalea, Bordatxoko errotonda, kiroldegia.

LH 4-5-6: Ikastola, Bordatxoko errotonda, Kalezar, Puntapax, kiroldegia.

11:15 Ikuskizuna Oiarde Kiroldegian. HH, LH eta DBHko ikasleen parte hartzea. Egiptoarrak, bakeroak, sorginak, futbol jokalaria-riak... Guztiak, "Ud-Arregi" zirko-ko kideekin batera kiroldegian bil-duko dira.



OTSAILAREN 12AN OSTIRALAREKIN IBILIKO DIRA KALEJIRAN UDARREGI IKASTOLAKO IKASLEAK.

INAUTERIAK 2010

Noaua!!
www.noaua.com



otsaia 13

Zirko mundiala

mozorrotu eta
atera kalera!

Tapa k eta aurkibideak prest

350-391

Agur esan diegu 2009 urteari. NOAUA! guztiak bildu eta 2009ko tapa eta aurkibidearekin koadernatzeko garaia da. Bazkide zaretenok azala eta aurkibidea doan jaso ditzakezue NOAUA!ko egoitzan.

Tapa eta aurkibidea doan eskuratzen dituzte bazkideek. Bazkide ez direnek, aldiz, 3 € ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1,20€, aurkibidearengatik. Koadernatzea, **Lizardin** edota **Lauroken** egin dezakezue. Hori bai, koadernatzea berdin-berdin ordaindu behar dute bazkideek eta bazkide ez direnek.

Zubietako Eskola Txikian, 2-8 urte arteko hezkuntza eskaintza

Otsailaren 12an amaituko da Udarrégi ikastolan, Aginagako Herri Eskolan eta Zubietako Eskola Txikian matrikulatzeko epea. Eskolako ohiko klaseetaz aparte, musika ere ematen da Zubietako Eskola Txikian.

NOAUA! Hezkuntza arloari dagokionez, zertan oinarritzen da Zubietako Eskola Txikiaren eskaintza?

Zubietako Eskola Txikia. Gaur gaurkoz, 2tik 8 urtera arteko hezkuntza eskaintza dago. Ordutegia: 09:00-12:00 eta 14:30-16:30. Oraingoz ez dago jantokirik.

N. Eskolatik aparte, ikasleek bestelako eskaintzarik ba al dute aukeran?

Z. E. T. Eskolatik aparte, musika eskola ere badugu. Zumarteko irakasleak ematen ditu eskolak, astelehen eta asteartean.

N. Pozik zaudete Eskolak dituen azpiegiturekin?

Z. E. T. Gurasook, eskolak duen lekufaltarekin arduratuta, Hezkuntza Sailari etorkizunerako bideragarritasun proiektua aurkeztu genion baina ez dugu baiezko erantzunik jaso. Beraz, gaur-



ZUBIETAKO ESKOLA TXIKIKO
JOLAS-GUNEA.

gaurkoz, kezkatuta gaude, batetik, jantokirik ez daukagulako eta, bestetik, LHko 1. eta 2. mailakoak aurrefabrikatutako moduluetan daudelako. Modulu horiek ez dute baldintza egokirik eskaintzen.

N. Zeintzuk dira Zubietako Eskola Txikian matrikulatzeko jarraitu behar diren pausoak?

Z. E. T. Matrikulazioa osatzeko, ikas-tetxera jo behar da, otsailaren 12a baino lehen (943 37 29 31).

N. Besterik esateko?

Z. E. T. Hezkuntza Sailarekin eta Donostiako Udaleko zinegotziekin bilera egiten ari gara eta ez dakigu zein emaitza emango dituen gure aldarrikapen prozesuak.

Euskaltegian matrikulatzeko aukera ireki da

Buruntzaldeko udalek, eskualdeko euskaltegi guztiekin batera, herritarrei gogorarazi nahi diete aukera paregabea dutela eskualdeko edozein euskaltegitan matrikulatzeko.

Zehazkiago, otsailean zehar, matrikula irekita dago Andoaingo, Astigarragako, Lasarte-Oriako eta Usurbilgo AEK euskaltegietan eta Hernaniko eta Lasarte-Oriako udal-euskaltegietan.

Ordutegien aukera oso zabala da, eta ikasmilena ere bai. Euskaltegi bakoitzaren eskaintzaren berri web honetan euskara.buruntzaldea.org ikus daiteke.

Web gune horretan bertan, bakoitzak bere euskara-mailaren gutxi gorabeherako erreferentzia emango dion automailaketa oso modu sinplean egiteko aukera ere badago.

Udal bakoitzak euskara ikasten dihardutenentzat dituen dirulaguntzak ere bertan kontsulta daitezke.

Haurrentzat antzerki ikastaro bat antolatu da

Zenbait gurasoen ekimenez, Zumeentzako antzerki ikastaro bat antolatu da.


Ikastaroa LH3, LH4 eta LH5 ikasurteetan dabilzan umeei zuzenduta dago. Taldeak gehienez 12-15 ikasle osatuta egongo dira eta entsegu edo klaseak larunbat goizetan izango dira.

Izena eman nahi duenak, otsailaren 19an herriko frontoian izango du aukera, arratsaldeko 17:00etan.

Informazio gehiago nahi duenak hona hemen bi telefono zenbaki aukeran: 680 742 504 (Nekane) eta 657 711 335 (Maite).

Bertso saiorako sarrerak Oiardon eta Txiribogan

Otsailaren 21ean, igandez, bertso saioa izango da Sutegin. Puntako lau bertsolari arituko dira: Andoni Egaña, Amets Arzallus, Uxue Alberdi eta Miren Amuriza. Inaxio Usarralde izango da gai-jartzailea. Bota Punttubak eta Udalak antolatu duten saio honetarako sarrerak kiroldegian eta Txiribogan jarriko dira salgai, otsailaren 12an ostiralarekin.



Kultura eta Gizarte Ongizateko dirulaguntzak

Kultura eta Gizarte Ongizateko dirulaguntza oinarriak otsailaren 2an argitaratu ziren GAOn. Dirulaguntzak eskatzeko epea otsailaren 25ean amaituko da. Honako agiriak eraman behar dira udalera: eskaera-orria (udaletxean eskuragarri), ekintzei buruzko fitxak, nortasun agiriaren fotokopia edo identifikazio fiskalaren kopia eta Gizarte Segurantzarekiko eta Ogasuneko betebeharretan egunera egotearen agiria.

Kiroletako dirulaguntza oinarriak aurrerago argitaratuko dira.

Zailtasunen aurrean indartsu

Ez daude sailkapeneko postu erosoenean, baina Usurbil FT-ko Preferente mailako hogei jokalaria gogotsu jarraitzen dute lanean. Animuak eta entrenatzen jarraitzeko gonbita luzatu nahi diete Clemente Fernandez eta Imanol Mendo entrentzaileek, taldeak egoera irauliko duela ziur baitira.

N. Lehen itzulia amaituta, zer balorazio egin dezakezue?

Clemente Fernandez. Denboraldi hasiera ezin hobea izan zen. Lehen hiru neurketak irabazi genituen, baina laugarrenetik aurrera galtzen hasi ginen. Hortik aurrera hartu genuen joeraren zergatia ez dut ulertzen, taldea bizirik baitago partida guztietan. Baina ez dugu burua altxatzea lortzen. Emaizak aurka jartzen zaizkigu eta kosta egiten zaigu, borrokatu arren. Atzean eusten ari gara, baina gola, garrantzitsuena, huts egiten ari zaigu.

IMANOL MENDO

“Sailkapenak ez du taldearen benetako egoera islatzen”

Imanol Mendo. Sailkapenak ez du taldearen benetako egoera islatzen. Zirkunstantzia desberdinetatik gauzak nahi bezala ez dira ateratu, eta behean gaude.

N. Aldi berean irakurketa baikorra egiten duzue taldearen inguruan.

I. M. Oso pozik gaude jokalarien konpromisoarekin, beti baitatoz entrenatzen. Oso ondo entrenatzen dute, erritmo onean. Partidan gauzak ez dira ateratzen, batzutan guregatik eta bestetan, arbitro-



PREFERENTE MAILAKO TALDEAK GOGOTSU JARRAITZEN DU LANEAN.

ak ere eragiten du.

C.F. Jokalariak jarrera egokia dute, ez dugu kexarik. Irabazi digutenek ere gutxigatik irabazi gaituzte.

N. Momentu zailei aurre egiteko erretarik ba al da?

C. F. Halako kasuetan, oinarrizkoena entrenatzen jarraitzea eta jokalaria animatzea, ez dago besterik.

I. M. Lanean jarraitu eta animatzea. Emaizak jasoko ditugu eta ia buelta ematen diogun dinamikari.

N. Nola irudikatu nahi zenukete denboraldi amaiera?

I. M. Idealea, estuasunik gabe amaitzea, partidak irabazten hastea, eta umore handiagoa izatea litzateke.

C. F. Maila honetan egotea merezia dute. Lortuko dugula uste dut, munduko gogo gutzia baitute.

N. Taldearen indar guneak zeintzuk dira?

I. M. Talde barruan dagoen giroa oso ona da, eta hori beti lagungarria da futbolerako. Talde gaztea da gainera, askok ikasteko gogoia dute, eta horretan ari dira.

C. F. Niretzat indar gune asko ditu tal-

deak, baina ez dira gauzak ateratzen zirkunstantziengatik. Batzuetan ez gara emaitzen erantzuleak, faktore gehiago daude jokoan; batzuetan nahi gabe, baina arbitroengatik. Oro har, taldea ondo dugu. Defentsa ona dugu, erdi gune sortzailea eta jolasten duena, aurrerari bizia. Uste dut sailkapenean gorago egon beharko genukeela, jokalaria duten kalitate eta jarreragatik. Oso harro gaude jokalarietaz, oso pozik.

“Batzuetan talde aurkariak jende gehiago ekartzen du”

N. Azken mezua, jokalarientzat.

I. M. Esaten dieguna, lanean jarraitzeko, animu eta egoerari buelta emango diogu. Herriaren laguntza pixka bat ere faltako litzateke, neurketetan harrailak nahiko hutsak egoten dira eta. Batzuetan talde aurkariak jende gehiago ekartzen du, etxeok baino.

C. F. Taldearengan konfiantza osoa dugu, eta taldea aurrera aterako da. Zuzendaritza taldeari eskertu bestalde, burutzen ari den lana, ahalegin handia egiten ari baita honek guztiak aurrera jarrai dezan.

INAUTERIAK 2010
OTSAILAK 13, LARUNBATA
IRATXO
TABERNA
INAUTERI FESTA IRATXON
KOPAK, MUSIKA...
bordaberri 5, USURBIL 943 36 91 35

teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE

Obaba kalea 29 · ASTEASU
943 69 68 52 · 620 800 186

Usurbilgo Hamaikabat eta Herri Plataforma, bost edukiontzien bilketa sistemaren alde

Bost edukiontzietan oinarritutako bilketa sistema defendatuko dute otsaila amaierako galdeketari begira, Usurbilgo Hamaikabat eta horren alde herrian sortua den plataformak. Otsailaren 4an, batera aurkeztu zuten burutuko duten kanpaina.

Bilketa modu honen aldeko apustua egiten dute, euren esanetan, legedia errespetatu, borondatezko sistema izan, erosotasuna eduki eta sistema garbi, eta estetiko delako. Etorkizunean edukiontzietan oinarritutako sistema nahi dute, eta edukiontziak lurperatuta.

5 EDUKIONTZIEN ALDE

“Atez atekoak hondakinen arazoa ez duela konponduko adierazi zuten”

Autokonpostajea bultzatzen jarraitu eta gerora hondakin bihurtuko diren gaiak sorreran gutxitzearen alde agertu ziren Usurbilgo Hamaikabat eta herri plataforma.



IRUDIAN, USURBILGO HAMAİKABAT ETA BOST EDUKIONTZIEN ALDEKO HERRI PLATAFORMAK ESKAINITAKO PRENTSAURREKOA ARTZABALEN.

Kanpainarako logotipoa ere aurkeztu dute. Hamaikabateko bozeramaile Luismari Ormaetxearen hitzetan, proposamen, esfortzu, ilusio eta burututako lanaren adierazle litzatekeen bost kolore eta zenbakidun esku irekia, azken asteotan herrian agertu diren kartel eta pankartetako irudia da.

Prentsaurrekoan, atez ateko bilketaren aurka agertu ziren bi bilguneetako ordezkariak. Bideragarria eta jasangarria

ez den inposatutako sistema gisa definitu zuten atez ateko bilketa. Atez ateko bilketak udalerrriaren etorkizuna ekonomikoki hipotekatu eta hondakinen arazoa ez duela konponduko adierazi zuten. “Atez ateko bilketak errausketaren beharra du”, gaineratu zuen Ormaetxeak.

Atez atekoaren aldekoiei, zabortegia non kokatu nahi duten gogoeta egitera deitu zituen.

Atez Ate Dudipe bilgunea sortu da

Atez atekoaren aldeko talde eragileak bilera burutu zuen otsailaren 5ean, herri galdeketaren kanpainaren nondik norakoak jorratzeko. Atari berria zabaldu dute gainera, www.dudipe.info

Zubieta Lantzen, Usurbil Bizirik, Alkartasuna nekazal kooperatiba, Atez Ateko Jarraipen Batzordea eta Gipuzkoako Errausketaren Aurkako Plataformen Koordinadorako Usurbilgo ordezkariak ordezkatuak daude elkarte berri honetan, Atez Ate Dudipe bilgunea izena du. Ataria zabaldu du talde eragileak; www.dudipe.info. Facebook

eta Twitter orrialdeetan ere tartea dute. Kanpaina jorratzeko bilkura parte hartzailea burutu dute.

Errausketaren aurkako mugimendutzat ere har daiteke Atez Ate Dudipe bilgunea.

Igande honetan, argazkia

Igande honetarako, ekitaldia iragarri dute Mikel Laboa plazan. Idatziz NOAUA!ra igorri duten oharrak dioenez, “Atez Ateko Bilketaren alde zaudeten eragile guztioi deialdi bat luzatzen dizuegu: otsailaren 14an igandea Mikel Laboa plazan eguerdiko



OTSAILAREN 5EAN ARTZABALGO EGOITZAN BURUTU ZEN BILKURA.

13:00ean taldeetako ordezkariak elkartzeko gara argazki handi eta jendetsu bat ateratzeko”.

Hiri hondakinen arazoak hiru udal talde batu ditu agiri batean

Ezker Abertzalea, Aralar eta EAJ-PNV-k eredugarritzat jo dute herritarren ahalegina

Gutxitan errepikatuko den argazkia da lerro hauen ondoan ageri dena. Hondakinen arazoari buruzko agiri bateratua sinatu berri dute Usurbilgo Ezker Abertzaleak, Aralarrek eta EAJ-PNV-k. Hondakinen arazoa, denona denez, kolore politikoen gainerik egon behar duela aldarrikatzen du hiru taldeek adostu duten testuak.

Herritar guztioi eragiten dien hondakinen arazoak, banatzeko baino batzeko balio izan die udaletxean ordezkaritza duten Usurbilgo Ezker Abertzalea, EAJ-PNV eta Aralarri. Hiru taldeen izenean, Xabier Mikel Errekondok, Iñaki Illarramendik eta Lontxo Zubiriak hiri hondakinen kudeaketari buruzko agiria adostu eta sinatu zuten pasa den astelehenean. Hainbeste zeresan eman duen eta herritar oroena den arazo baten aurrean, gutxitan ikus daitekeen irudia lortu da; udal ordezkarien gehiengoaren batasunarena eta arazoa konpontzeko elkarlanerako saiakerarena, alegia.



XABIER MIKEL ERREKONDO ALKATEA, LONTXO ZUBIRIA ETA IÑAKI ILLARRAMENDI UDAL ZINEGOTZIAK, AGIRIA SINATZEKO UNEAN.

Adostutako testuan aipatzen duten moduan, "hondakinen arazoak kolore politikoen gainerik egon behar du".

Herritarrek gai honetan burutu duten lanaz harro sentitzen direla adierazten dute sinatzaileek. Eredugarritzat jotzen dute herritarren ahalegina eta parte hartzea. Ohitura aldaketa batek zenbateko

eragina izan dezakeen azpimarratzen dute hiru udal taldeek. Hondakin gutxiago sortu eta gehiago birziklatzeko, hondakin biltzaile sistemak zer nolako garrantzia duen ere gaineratzen dute.

Azkenik, otsaileko azken asteburuan burutuko den herri-galdeketa bozkatzerantz deitzen dituzte herritarrak.

Agiri bateratua !

Hiri-hondakinen kudeaketa

Hondakinen arazoa, geroz eta larriagoa izateaz gain, denon arazoa da eta kolore politikoen gainerik egon behar du. Hori dela-eta, Usurbilen saiatzen ari gara elkarlanean konponbide bat ematen. Denon osasuna zaindu nahi dugu eta ingurumena ahal den gehiena errespetatu.

Horretarako, zenbat eta hondakin gutxiago sortu, hobe; eta, sortzen dugunetik ahalik eta gehien birziklatu, hobe.

Honetan garrantzi berezia du hondakinak biltzeko unean erabiltzen den sistemak.

Datuak datu, gutako bakoitzak ikusi dugu zer gertatzen den geure etxean, zenbat errefusa ateratzen genuen lehen eta zenbat orain. Bestalde, jabetu gara ohitura-aldaketa sinple batek nolako eragina izan duen geure bizitzan.

Idatzi hau sinatzen dugun alderdiak harro gaude usurbildarrok egin dugunarekin, herritarren parte hartzea eta lana eredugarriak izan baitira.

Usurbilgo Aralar, EAJ-PNV eta Ezker Abertzaleak ahaleginak merezi duela pentsatzen dugu, eta osasuna eta ingurumena nolakoa nahi duzun erabakitzea zure

eskuetan dagoelako, otsailaren 27-28an egingo den galdeketa parte hartzerantz eta bozka ematera animatzen zaitugu.

Usurbilen, 2010eko otsailaren 5ean.

Sinatzen duten hiru alderdien udal bozeramaileak:

Xabier Mikel Errekondo,
Ezker Abertzalea

Lontxo Zubiria, Aralar

Iñaki Illarramendi, EAJ-PNV

Autobus Orduetgia

Astelehenetik Ostiralera LANEGUNETAN

Donostia	Urbil	Usurbil	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Usurbil	Urbil	Donostia
06.55	>>	07.15	07.25	07.35	06.45	06.55	07.05	>>	07.30
07.40	>>	08.05	08.15	08.25	07.15	07.25	07.35	>>	08.00
08.10	>>	08.35	08.45		07.45	07.55	08.05	>>	08.30
08.40	>>	09.05	09.15	09.25	08.15	08.25	08.35	>>	09.00
09.10	09.30	09.35	09.45		08.45	08.55	09.05	>>	09.30
09.40	>>	10.05	10.15	10.25		09.30	09.40	09.45	10.10
10.40	>>	11.05	11.15	11.25	09.45	09.55	10.05	>>	10.30
11.40	>>	12.05	12.15	12.25		10.30	10.40	10.45	11.10
12.10	12.30	12.35	12.45		10.45	10.55	11.05	>>	11.30
12.40	>>	13.05	13.15	13.25	11.45	11.55	12.05	>>	12.30
13.10	13.30	13.35	13.45		12.45	12.55	13.05	>>	13.30
13.40	>>	14.05	14.15	14.25	13.45	13.55	14.05	>>	14.30
14.10	14.30	14.35	14.45			14.30	14.40	14.45	15.10
14.40	>>	15.05	15.15	15.25	14.45	14.55	15.05	>>	15.30
15.10	15.30	15.35	15.45		15.45	15.55	16.05	>>	16.30
15.40	>>	16.05	16.15	16.25		16.30	16.40	16.45	17.10
16.40	>>	17.05	17.15	17.25	16.45	16.55	17.05	>>	17.30
17.40	>>	18.05	18.15	18.25	17.45	17.55	18.05	>>	18.30
18.10	18.30	18.35	18.45		18.45	18.55	19.05	>>	19.30
18.40	>>	19.05	19.15	19.25		19.30	19.40	19.45	20.10
19.10	19.30	19.35	19.45		19.45	19.55	20.05	>>	20.30
19.40	>>	20.05	20.15	20.25	20.45	20.55	21.05	21.10	21.30
20.15	20.35	20.40	20.50	21.00	21.15	21.25	21.35	21.40	22.00
21.00	21.20	21.25	21.35	21.45					
22.15	22.35	22.40	22.50	23.05					

Larunbat, igande eta JAIEGUNETAN

Donostia	Urbil	Usurbil	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Usurbil	Urbil	Donostia
08.00	08.20	08.25	08.35	08.45	06.45	06.55	07.05	07.10	07.30
09.00	09.20	09.25	09.35	09.45	07.45	07.55	08.05	08.15	08.40
10.00	10.20	10.25	10.35	10.45	08.45	08.55	09.05	09.15	09.40
11.00	11.20	11.25	11.35	11.45	09.45	09.55	10.05	10.15	10.40
12.00	12.20	12.25	12.35	12.45	10.45	10.55	11.05	11.15	11.40
13.00	13.20	13.25	13.35	13.45	11.45	11.55	12.05	12.15	12.40
14.00	14.20	14.25	14.35	14.45	12.45	12.55	13.05	13.15	13.40
15.00	15.20	15.25	15.35	15.45	13.45	13.55	14.05	14.15	14.40
16.00	16.20	16.25	16.35	16.45	14.45	14.55	15.05	15.15	15.40
17.00	17.20	17.25	17.35	17.45	15.45	15.55	16.05	16.15	16.40
18.00	18.20	18.25	18.35	18.45	16.45	16.55	17.05	17.15	17.40
19.00	19.20	19.25	19.35	19.45	17.45	17.55	18.05	18.15	18.40
20.00	20.20	20.25	20.35	20.45	18.45	18.55	19.05	19.15	19.40
21.00	21.20	21.25	21.35	21.45	19.45	19.55	20.05	20.15	20.40
22.00	22.20	22.25	22.35	22.45	20.45	20.55	21.05	21.15	21.40
22.30	22.50	22.55	23.05	23.15	21.45	21.55	22.05	22.15	22.40

LARUNBAT GAUETAN

00.00	>>	00.25	00.35	00.45
01.00	>>	01.25	01.35	01.45
02.00	>>	02.25	02.35	02.45
04.00	>>	04.25	04.35	04.45
05.00	>>	05.25	05.35	05.45
06.00	>>	06.25	06.35	06.45

LARUNBAT GAUETAN

23.15	23.25	23.35	>>	00.00
00.15	00.25	00.35	>>	01.00
01.15	01.25	01.35	>>	02.00
02.15	02.25	02.35	>>	03.00
03.15	03.25	03.35	>>	04.00
04.15	04.25	04.35	>>	05.00
05.15	05.25	05.35	>>	06.00

Zarautz	Orio	Usurbil	Donostia	Donostia	Usurbil	Orio	Zarautz
06.08	06.15	06.24	06.38	06.47	06.01	06.11	06.20
06.38	06.45	06.54	07.09	06.17	06.31	06.41	06.50
07.08	07.15	07.24	07.39	06.47	07.01	07.11	07.20
07.38	07.45	07.54	08.09	07.17	07.31	07.41	07.50
08.08	08.15	08.24	08.39	07.47	08.01	08.11	08.20
08.38	08.45	08.54	09.09	08.17	08.31	08.41	08.50
09.08	09.15	09.24	09.39	08.47	09.01	09.11	09.20
10.08	10.15	10.24	10.39	09.47	10.01	10.11	10.20
11.08	11.15	11.24	11.39	10.47	11.01	11.11	11.22
12.08	12.15	12.24	12.39	11.47	12.01	12.11	12.20
12.38	12.45	12.54	13.09	12.17	12.31	12.41	12.50
13.08	13.15	13.24	13.39	12.47	13.01	13.11	13.20
13.38	13.45	13.54	14.09	13.17	13.31	13.41	13.50
14.08	14.15	14.24	14.38	13.47	14.01	14.11	14.20
14.38	14.45	14.54	15.09	* 14.17	14.31	14.41	14.50
15.08	15.15	15.24	15.39	14.47	15.01	15.11	15.20
* 15.38	15.45	15.54	16.09	* 15.17	15.31	15.41	15.50
16.08	16.15	16.24	16.39	15.47	16.01	16.11	16.20
* 16.38	16.45	16.54	17.09	* 16.17	16.31	16.41	16.50
17.08	17.15	17.24	17.39	16.47	17.01	17.11	17.20
* 17.38	17.45	17.54	18.09	* 17.17	17.31	17.41	17.50
18.08	18.15	18.24	18.39	17.47	18.01	18.11	18.20
* 18.38	18.45	18.54	19.09	* 18.17	18.31	18.41	18.50
19.08	19.15	19.24	19.39	18.47	19.01	19.11	19.20
* 19.38	19.45	19.54	20.09	* 19.17	19.31	19.41	19.50
20.08	20.15	20.24	20.39	19.47	20.01	20.11	20.20
21.08	21.15	21.24	21.39	20.47	21.01	21.11	21.20
22.08	22.15	22.24	22.39	21.47	22.01	22.11	22.20
22.40	22.47	22.56	23.11				

■■■■■ Astelehenetik Ostiralera LANEGUNETAN
 ■■■■■ Astelehenetik Igande eta JAIEGAN
 ■■■■■ Astelehenetik eta Udako (2010/06/21 - 2010/09/12) larunbat, igande eta Jaiegunetan

Bezeroen arretarako bulegoa ☎ 902 54 32 10 www.euskotren.es 📧 atcliente@euskotren.es



ASTIGARRAGA-HERNANI-LASARTE-USURBIL

Irteera Usurbil	Irteera Astigarraga
ASTELEHEN-OSTIRALERA	ASTELEHEN-OSTIRALERA
07:15 7:45 08:15 08:45	07:00 7:30 08:00 08:30
09:15 10:15 11:15 12:15	09:00 09:30 10:30 11:30
12:45 13:15 13:45 14:15	12:30 13:00 13:30 14:00
14:45 15:15 16:15 17:15	14:30 15:00 15:30 16:30
18:15 18:45 19:15 19:45	17:30 18:00 19:00 19:30
20:15 20:45 21:15 21:45	20:00 20:30 21:00 21:30
22:15	22:00
IGANDE-JAIEGUNETAN	IGANDE-JAIEGUNETAN
15:15 16:15 17:15 18:15	15:00 16:00 17:00 18:00
19:15 20:15 21:15 22:15	19:00 20:00 21:00 22:00

URNIETA-LASARTE-ZUBIETA-USURBIL

ASTELEHEN-OSTIRALERA				
Usurbil → Urnieta				
USURBIL	SANTUENEA	ZUBIETA	LASARTE	URNIETA
07:15	07:20	07:25	07:30	07:45
08:15	08:20	08:25	08:30	
09:15	09:20	09:25	09:30	09:45
12:30	12:35	12:40	12:45	13:00
13:30	13:35	13:40	13:45	
14:30	14:35	14:40	14:45	15:00
18:30	18:35	18:40	18:45	19:00
19:30	19:35	19:40	19:45	
20:30	20:35	20:40	20:45	21:00

ASTELEHEN-OSTIRALERA				
Urnieta → Usurbil				
URNIETA	LASARTE	ZUBIETA	SANTUENEA	USURBIL
07:45	07:00	07:05	07:10	07:15
	08:00	08:05	08:10	08:15
09:45	09:00	09:05	09:10	09:15
	10:00			
13:00	12:15	12:20	12:25	12:30
	13:15	13:20	13:25	13:30
15:00	14:15	14:20	14:25	14:30
	15:15			
19:00	18:15	18:20	18:25	18:30
	19:15	19:20	19:25	19:30
21:00	20:15	20:20	20:25	20:30
	21:15			

TSST autobusak ZUBIETA-LASARTE

LANEGUNETAN
 Zubieta-Lasarte 7:25 / 08:25 / 09:25 / 12:40 / 13:40 / 14:40 / 18:40 / 19:40 / 20:40
 Lasarte-Zubieta 7:00 / 08:00 / 09:00 / 12:15 / 13:15 / 14:15 / 18:15 / 19:15 / 20:15

LARUNBATETAN (DIRA LANAK AMAITZAN)
 Zubieta-Lasarte 08:15 / 12:45 / 15:05 / 21:35
 Lasarte-Zubieta 08:10 / 12:40 / 15:00 / 21:30

JAIEGUNETAN (DIRA LANAK AMAITZAN)
 Zubieta-Lasarte 11:20 / 13:30 / 15:30 / 21:35
 Lasarte-Zubieta 11:15 / 13:25 / 15:25 / 21:30

Bezeroen arretarako bulegoa ☎ 943 36 17 41
www.tsst.info

BUS-TAXI Astelehenetik Ostiralera

	CSH-TOLUAK	ORDIAX
1	Usurbil karkoa	7:30 10:30 13:00 15:30 19:00
2	Kalegor	7:32 10:32 13:02 15:32 19:02
3	Iartoa	7:35 10:35 13:05 15:35 19:05
4	Ibarola	7:38 10:38 13:08 15:38 19:08
5	Arretzaiz	7:42 10:42 13:12 15:42 19:12
6	Txantxon	7:45 10:45 13:15 15:45 19:15
7	Urdaira	7:48 10:48 13:18 15:48 19:18
8	Aginaga	7:55 10:55 13:25 15:55 19:25
9	Txokoalde	8:00 11:00 13:30 16:00 19:30
10	Urdaizaga	8:03 11:03 13:33 16:03 19:33
11	Santuenea	8:03 11:03 13:33 16:03 19:33
12	Usurbil karkoa	8:05 11:05 13:35 16:05 19:35
13	Santuenea	8:10 11:10 13:40 16:10 19:40
14	Amiri	8:12 11:12 13:42 16:12 19:42
15	Eneko inguru	8:14 11:14 13:44 16:14 19:44
16	Alkortaona	8:17 11:17 13:47 16:17 19:47
17	Zubieta	8:22 11:22 13:52 16:22 19:52
18	Tukiendi	8:27 11:27 13:57 16:27 19:57
19	Usurbil karkoa	8:30 11:30 14:00 16:30 20:00

Agenda !!

Otsailak 12 ostirala
- Inauteri kalejira eta festa Udarregiren eskutik (ikus 10 or.).

Otsailak 13 larunbata
- Inauteri festa (ikus 10 or.).

Otsailak 20 larunbata
- "SoOofing" antzezlan, Sutegin. Ordua zehazteko oraindik.

Otsailak 21 larunbata
- Bertso saioa Sutegin, 18:00. Uxue Alberdi, Miren Amuriza, Amets Arzallus, Andoni Egaña. Sarrerak, 8 euro. Aurretik 5 euro, Oiardon eta Txiribogan.

Goardiako farmaziak

Otsailak 11, osteguna
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Otsailak 12, ostirala
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Otsailak 13, larunbata
Oa, Kontseju Zarra 11 Usurbil
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Otsailak 14, igandea
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Otsailak 15, astelehena
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Otsailak 16, asteartea
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Otsailak 17, asteazkena
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Otsailak 18, osteguna
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Otsailak 19, ostirala
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Otsailak 20, larunbata
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Otsailak 21, igandea
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Chucla farmazia (22:00-09:00),
Kardaberaz, 48, Hernani (943 551 793)
*Usurbilen, soilik eguerdira arte

Datorren astean,

"SoOofing" antzezlanaren azken saioa

Etxeko egongelako objektu preziatuena izango da sofa. Hortik dator Txerriki Gazte Kuadrilla antzerki taldearen lehen obraren izenburua. Duela urtebete eskaini zuten lehen aldiz. Azken saioa ordea, otsailaren 20an eskainiko dute, Sutegin.

Edonoren etxeko sofan gertatu ohi diren eguneroko hainbat egoera irudikatzen dira "SoOofing" antzezlanean. Txerriki Gazte Koadrillako hiru aktore gazteek sofa baten inguruan bil litezkeen pertsonaia mota desberdinak hezur-mamituko dituzte.

Jon Etxabe, Leire Iturrioz eta Ander Izeta herriko aktore gazteek, iaz eskaini zuten antzezlan hau herrian, eta azken



LEIRE ITURRIOZ, ANDER IZETA ETA JON ETXABE, TXERRIKI GAZTE KOADRILAKO HIRU AKTOREAK.

saioa ere herrian egingo dute, datorren asteko larunbatean.

Noiz: otsailak 20 larunbata.

Non: Sutegin.

Sarrera: doan.

Oharra: dotore jantzita etorri...

Asteburuan pilota partidak

UDABERRI TXAPELKETA
OTSAILAK 11 OSTEGUNA
Gaueko 20:30ean, Aginagan
Eskuz binaka nagusiak 1. maila
USURBIL 1 - AZKOITIKO 2
(Xabier Errasti - Asier Katalina)

Paleta goma gizezkoak
Nagusiak 1. maila
USURBIL - AIAKO
(Inigo Huegun - Aritz Urdanpilleta)

OTSAILAK 13 LARUNBATA
Eguerdiko 11:30ean, Aginaga
Eskuz binaka kadeteak 3. maila
USURBIL - ANTIGUAKO
(Inigo Ibargoien - Imanol Rebollo)

Zozketan parte hartu eta arkumea irabazi

Mirotzen omenezko infantil mailako txapelketa jokatu zen abenduaren 29an kiroldegian. Arkume bat zozketatzeko errifa jarri zen martxan baina irabazlearen izena aste honetan jakin da: **Lurdes Calleja**. Juantxo Esnaolari eta partehartzaile denei eskerrak eman nahi dizkiete eskubaloi taldekoek.



Otar-Goxo
Elkargaitak

Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

izagirre
ELEKTRIZITATEA
943 36 50 95-609 06 81 11
izagirreletrizitatea@hotmail.com
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
☎ 943 370 008

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13
Ojandegin - Gozotegia
LABE-GOXO

ETXEBIZITZA

- Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 606 457 112.
- Neska euskaldunak pisu bat hartuko luke errentan Usurbilen. Interesatuak deitu 647 486 232.
- Landetxe bat saltzen da Alfaron (Errioxan). Astebukaerak eta oporraldietarako egokia. Terreno eta pistinarekin. Herritik 1,2 kilometrotara. 2 logela, egongela tximenearekin, sukaldea, komuna eta portxea. 675702428 (gauetan).
- Etxe bat konpartitzeko pertsona baten bila nabil. Interesatuak deitu 20:00etatik aurrera 661568471.
- Gela bat alokairuan pertsona serio batentzat, pisu berri batean. 300 euro, gastuak aparte. Usurbil inguruan. 609 901 734 edo 943 575 788.
- Muna Lurra kalea 16, 3.C salgai. Eguzkitsua eta berriua. Interesatuak deitu: 637225620.
- Pisu bila nabil Usurbilen. Alokairuan nahi nuke. 664 885 737.
- 95metro karratuko etxebizitza salgai Kaxkoan. Erreforma behar du baina aldaketak egiteko aukera asko. 638279184.
- Orion babes ofizialeko etxe bat daukat eta Usurbilen babes ofizialeko exteren bat daukan norbaitekin aldatuko nuke. Interesatuak deitu 663600020.
- 230 metro karratuko etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro karratuko lursaillean. Kalezarreko eremu urbanoan. 665720913.
- Bordaberri 3 kalean etxe bat daukagu salgai. 676910638.
- Baseri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Santuenea 26an 60metro karratuko etxea daukagu salgai. 2 gela, sukaldea handia, etxek kanpokaldera ematen du, gasa eta kalefazioa ditu. 200.000. 666539284.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna,... eta trasteroarekin. 685731792.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.
- Lasarten apartamentu bat salgai, egoera onean. Erdigunean. Toki lasaia eta berriua. Bikote batentzat egokia. 657708866

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Aprilia Chester R-125 motorra daukagu salgai. Egoera onean eta prezio interesgarria. 661618970
- Karabana bat salgai. Modelo zaharra da baina egoera oso onean dago. Prezio interesgarria. 646514494
- Mitsubishi L200 bat salgai. SS-AZ eta egoera onean. 646514494
- Mendiko terenoak erosiko nituzke. Basoa ateratzeko edo basorik gabea ere bai. 943362237.
- Atxegalden 33 metro karratu dituen lokal bat alokatzen da. Sarrera egokia. 943373414. 280 euro hilean.
- Garaje bat alokatzen da Bizkarre kalean. Neurriak 2,5m x 5m eta 2,1 metroko altuera. 943361265.

- Usurbilgo industrialde batean 220 metro karratuko pabiloi bat alokatzen da. 616926027.
- 50cc-ko motorra daukat salgai. Aukera paregabea. 2 urte eta oso kilometro gutxi. Beti garajea, ondo zaindua. 622369646.
- Sotano komertzial bat alokatzen da 600 eurotan. 650938489
- Txoko polit bat alokatzen da. 650943847
- Atxegalden Aristitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.
- Etxebeste kalean 44 m2-ko lokala alokatzen da. Interesatuak deitu: 943 36 12 19.

LANPOSTUAK

Lan-etsaerak

- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo ostalaritza lanetarako. Esperientziaduna. 658107757
- Esperientziadun emakumea behar da goizez etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. Hiru orduz: goizeko zazpikatik hamarretara. 687 055 166.
- Astebukaeratan lan egiteko, zerbitzari moduan aritzeko pertsona bat behar dugu. 943 36 67 10.

Lan-ekaintzak

- Urte asko herrian daramatzen emakume bat eskaintzen da, adineko pertsonak edota haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Ordutegi malgua. 687 348 223 edo 943 364 310.
- Emakume batek interna moduan pertsona helduak zein haurrak zaintzeko lana bilatzen du. 660554968
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 676188411
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 630438571
- Gizon bat eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko edo baserriko lanak egiteko. 662461568
- Mutil gazte bat eskaintzen da eraikuntza lanak, garbiketak eta baserri lanetan aritzeko. 677593772
- Jardineritza lanak egiten ditut, txukun eta modu onean. Inaki: 677 44 31 40.
- Saltzaile, zerbitzari, pertsona helduak zein haurrak zaintzen edo garbiketara lanak egingo nituzke. Interesatuak deitu 656446835
- Pertsona helduak zaintzeko neska bat eskaintzen da. Esperientziaduna. 606 800 837.
- Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zaintzeko prest nago. 648 785 026.
- Emakumea interna edo goiz zein arratsaldez orduka lan egiteko prest. 648 785 026.
- Zerbitzari, sukaldari laguntzaile edo garbitasun lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 664048228
- Mendian edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
- Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608835033
- Matematika eta estatistika klaseak ematen ditut, edozein mailan, esperientzia handia. 646717676.
- Autoen mekanikari gisa lan egingo nuke. 943368574.
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da.

620185927.

- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska euskaldun bat eskaintzen da. 685716774.
- Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 630768325.
- Neska bat eskaintzen da haurrak edo pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 620 364 176.
- Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.
- Neska gazte esperientziaduna eta usurbildarra, arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. 661 626 500 // 943 371 348.
- Fisika eta matematikako klase partikularrak emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. 679742413.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Otsailaren 3an belarritako bat galdu dut Usurbilen. Perla txuri bat dauka. Eskertuko dugu. 943365958
- Bi zilarrezko eraztun galdu ditut. Batek hiru delfin ditu eta besteak bat. Balio sentimental handiak. 666717913
- Aiako babarruna salgai, prezio onean. 670410273.
- Logelako armairu bat daukat salgai. Lau ateko armairua, bi urte ditu eta egoera oso onean dago. Interesatuak deitu 600369013 telefonora.
- Dorleta Kinkildegia traspasatzen da. Interesatuak deitu 609099824 telefonora.
- Urtarrilak 6an harribitxiak zituen urrezko eraztun bat galdu nuen Eliza eta Kaffa kafeteri artean. Norbaitek aurkitu badu eskertu nuke telefono honetara deitzea 943365631.
- Zaldi bat jartzeko lur sail bat edo ikuilu bat alokatu nuke Usurbil edo inguruan. 616260451
- 7 gazteko lagun taldea gara eta lokal bat alokairuan hartuko genuke, 200 bat euro. 606 101 980.
- Ostalaritzako makinarria, kafetegiko altzariak salgai; aulkiki, mahaiaik, kafe-makina,... 607 389 570 (Mireia). istergo@hotmail.com
- Atxegalden 30 metro karratuko lokal bat alokatzen da (lehen Truke). 943 373 414.
- Informatikaria naiz. Ordenagailuen edo informatikari buruz edozein zerbitzu behar izanez gero. Oskar: 609 468 759 oskarsm@hotmail.com
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Inaki)
- Ohea egiten den 3 plazako sofa bat daukat salgai 125 euro. Kolore argia, txuri-beig kolorekoa. 655731915
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113
- Etxebizitzaren erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173466.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasozten ari direnak beraien moxal jaioberriekin eta urtebeteko behorra. 626 220925



Zorionak Aritz! Otsailak 8an egin dituzu bi urte. Zorionak eta muxu potolo bat familiko-en partez! Zorionak zuri...



Zorionak Ander eta Ione! Anderrek otsailak 8an eta Ionek 14an egiten dituzue urteak. Zorionak eta muxu handi bat Kororen partez. Ondo pasa zuen egunean!

JAIOTZAK

Haizea Unsain Gallego
Urtarrilaren 27an



Zorionak Mañel!!!
Otsailaren 14an 2 urte egingo dituzu. Muxu handi bat etxekoan partez.



Urte askotarako Inaxi!
Otsailaren 14an egun polit bat pasa dezazula opa dizugu. Muxu asko zure familiaren partez.



Zorionak Nora! Gure etxeko bihurriak 2 urte bete zituen otsailaren 3an. Muxu handi bat etxeko guztien partez.



Zorionak Julen! San Balentin egunean 5 urte betetzen dituzu. Muxu asko Ane eta etxeko guztien partez. Ondo pasa!

LAUKOTE
OKINDEGIA
KAFETEGIA
Puntapan kalea, 16 behe
(Artzabal) 943 36 09 80

Papera jartzea eta
Pinturak orokorrean
FERNANDO
PINTORAK
943 366 019
943 363 460
Kale Nagusia 1 - USURBIL

Patri Jatetxea
K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

Andoni Errazkin
Xukin
igeltzeritza orokorra
Barne eta kanpoko lanak
USURBIL
☎ 663 08 76 71 • 943 24 34 65

TXOTX!!



Tel.: 943 365 031

Mugikorra: 670 027 731

Santuenea



LARRE-GAIN DOLARE SAGARDOTEGIA

Urtarriletik apirilera
TXOTX GARAIA
Ostiral, larunbat eta igande
eguerdian IREKITA
Astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserría Ereñotzu - Hemani

Tel.: 943 55 58 46 Mugik.: 616 287 867



SAIZAR Betiko Sagardoa



Kalezar Auzoa, 39 • USURBIL • Tel. 943 362 228

www.sidrassaizar.com



ELUTXETA SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelheña izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • ☎ 943 55 69 81



ERRETEGIA • NEKAZALTURISMOA

ARRATZAIN TOLARE-SAGARDOTEGIA

Egunero irekia.

Arratzainzar Baserría
info@agroturismoarratzain.com

Tel: 943 36 66 63
20170 USURBIL



☎ 943 36 12 29

iruin
sagardotegia

Iruin Sagardotegia | Astiazaran Sagardoak
Petritza bidea z/g. 20170 Zubieta USURBIL
www.iruinsagardotegia.com | www.astazaransagardoak.com

AGINAGA Sagardotegia

Urte osoan txotxetik

Estxara kalea, 7
Aginaga auzoa, USURBIL
Tel. eta Faxe: 943 36 67 10
Tel.: 943 37 06 68

a.sagardotegia@aginagasagardotegia.com



OSASUNA DA JOKOAN DAGOENA

gure osasuna eta planetarena, biak gauza bat eta bera direla dakigulako



herri kontsulta otsailak 27 eta 28an



Usurbilgo Udala